

“Non nahi izkutatzea badaukate, aurkituko ditugu eta. Leize batean edo arratoiak izkutatzen diren bezela kloaka batean, inor ordezkatzan ez duen asanblada batean edo unibertsitateko aulki baten atzean”.

David Piqué (Mossos d'Esquadra-ko komisarioa)

“No se van a ir de rositas”

Esperanza Aguirre  
(Madrilgo Komunitateko presidentea)

## POSIZIO BAT HARTZEA

da...

**Etetea.** Inpotenziarekiko lotzen gaituen hitz jarioa geldiaraztea. Nekaturiko hitzak, are eta gehiago nekatzen gaituzten hitzak. Hamaika bider errepikaturiko aldarrikapen eta keinuak, inork sinesten ez dituenak. Etetea estandarizaturiko lenguaiak baztertzea da. Adituen eta agintarien aurrean “ez dakigu irakurtzen” bildurrik gabe adieraztea, sasi jakintza hauetatik desertazen dugun basatiak garena, guztia berriro ikasteko daukaten analfabetoak garena aldarrikatzea.



**Hustea.** Harrapatzen eta giltzaperatzen gaituzten identitateak hustea. Inoiz osatzen ez den “gu” huts baina konkretu batetik hitz egiten dugu, aurrez aurre garaturikoa. Singularizatu eta partekaturiko arazoaren fronte komun batean kokatzen gaituen anonimatu batetik hitz egiten dugu. Funtsezkoenera joatea derrigorrezkoa da. Zentzuduntasunarekiko hustea. Zentzuekiko guztiz hustea. Ez dugu zenturik behar, egia borrokan eraikitzen baita, ezarri dizkiguten lekuak desokupatzen ditugunean, bildurra kanporatzen dugunean, justifikazioak gaitzesten ditugunean. Hustea norbera hustea da. Ezer ez edukitzea, ezeri loturik ez egotea, jada ezerren beldur ez izatea.

**Artikulatzea.** Puntuz puntu, gaur egun eguneroko existentzian noiz-nahi ematen diren politizazio amaigabe eta iragarriezinak artikulatzea. Politizazioak artikulatzea azpiko zurrumurru hau izendatzea da, egonezinari izen bat ematea. Honek auto-antolaketatik hasia inplikatzan du, ez nolabaiteko soluzio magiko bat balitz bezela baizik eta ebatzi beharreko arazo multzo bat bezela: erabakiak hartzea, komunak diren helburuak zehaztea eta biolentziaren arazoa pentsatzea. Baina funtsean, bota behar dugun galdera honakoa da: zein antolakuntza eta existentsia maila onartzeko prest gara gaur egun borrokan egiteko?



Les quatre cents coups

Posizio bat hartzea “gu” bat eraikitzen hasia denaren aurrenentipena dut

**EL PRESSENTIMENT**

N.7

www.elpresentiment.net

12.05.2012